

Txiskeroa

**Oihane Larretxea
de la Granja**

Egunero ikusten zaitut, baina ez dakit nor zaren. Egunero agurtzen zaitut. Hotz egiten duenean artilezko txano bat daramazu soinean, ez dizkizu belarriak estaltzen. Jertse bat eta bakeroak janzten dituzu normalean, eta oinetako marroiak. Behatzen artean trebeziak sostengatzen dituzu klinex paketeak eta zigarroak pizteko koloretako txiskeroak. Erosleak erabakitzen du prezioa. Jendeak euro bat eman ohi dizu. Begi txikiak dituzu, biziak, eta irribarrez oihukatzen diozu «egun on!» lanerako bidean-edo pasadizotik presaka igarotzen den orori.

Zu ere egunero ikusten zaitut. Ez da hainbeste gure auzoko kaleetara ailega-

tu zarela. Goizetan burdindegia-
ren kanpoaldean egoten zara, kale kantoian; arratsaldeetan banketxearen eta okindegia-
ren artean. Ilea txirikordaz betea daukazu eta azala gaua baino beltzagoa. Ez dakit nor zaren eta ez dakit nola duzun izena, baina, ziur aski, urrun dagoen herrialde batetik ailegatu zara gure artera, nik ez dakit nola. Elkar agurtzen dugu egunero, zuk beti eskua luzatuz. Hori da dugun kontaktu bakarra.

Zu, bai zu... zu ere egunero ikusten zaitut, zubian. Bueno, azkenaldian geroz eta gutxiago. Lurrean eseri eta kartoi batean idatzitako hitz trakets batzuekin laguntza eskatzen duzu. Ez zaitut inoiz agurtu, begirada lurrean galduta izaten

duzu, eta pentsamenduak... nork daki. Eta egia esan behar badut, batzuetan begiratu ere ez dizut egiten.

Ikusleak pertsona horiei begietara begiratzera derrigortu nahi izan ditu Ekain Irigoien zinemagileak egin duen lehen lan dokumentalean, “Hijos de Dios”. Madrilen kalean bizi diren bi gizonen bizitzak jaso ditu. Javi eta Romerales. Bizipen latzak, muturrekoak. «Inork asmatuko al genuke egoera horiek kudeatzen? Egoerak berak edonor jar dezake kalean, eta betiko», dio.

Ez dut erretzen, baina gainditu nahi nituzke lotsak, aurreiritziak eta beste mila aitzakia. Txiskeroaren aitzakiarekin nor zaren galdetu nahiko nizuke. •

Tabakoa kaltegarria da

**Xabier Izaga
Gonzalez**

Euskaraldian izena emateko epea zabaldu da, ahobizi edo belarriprest izateko aukera», irakurri dut NAIZen. Honezkero inork gutxik uste izango du ahobizi izateko jan-edanean jarduteko trebatu beharra dagoenik, edo egun osoan maskarari eusten ohitu ostean denok garelako belarriprest.

Aurreko edizioa hasi zen egun berean, irratian izan nintzen hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimen horretaz mintzatzen, GAUR8n horren gaineko erreportaje bat argitaratu genuen eta. Erredakziora bi-

dean, zigarro bat atera nuen, baina konturatu nintzen ez nuela surik. Pareko tabernaren kanpoaldean gazte bat zegoen, ez horren gaztea, erretzen. «*Perdona. ¿Tienes fuego?*», esan nion, ahobizi. «Gaizki hasi duzu ariketa», erantzun zidan, ahobiziago eta beharbada belarriprest barik belarrimotz nintzela pentsatuz. Txamarraren lepoa altxatu eta, diplomatiko baina zintzo, esan nion: «Zuk ederto hasi duzu, ba».

Egia esateko, beste testuinguru batean euskaraz mintzatuko nintzaion. Orduko hartan tabernarekin, edo taberna horre-

tako giro errespetagarri bezain erdaltzalearekin, identifikatu nuen lagun hura.

Egun bereko arratsaldean, lanetik atera berri, beste zigarro bat atera eta txiskerorik gabe jarraitzen nuela konturatu nintzen. Taberna bateko terrazan neska gazte bi ikusi nituen, haietako bat Amerikako zaporea duten zigarro horietako bat erretzen. Han joan naiz zuzen: «Baduzu surik?». «*¿Qué...?*», neska erretzaileak. Eta nik ezer esan baino lehen, beste neskak, belarriprest, Hego Amerikako doinuarekin: «*¡Que si tienes encendedor!*».

Horixe da ideia. •